

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

EBAZPENA, 2012ko irailaren lekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, Gasteizko Diseinuko Arte eta Goi-mailako Eskolako Arte Irakaskuntzako Goi Teknikariaren eta Diseinuko Goi-mailako Arte Irakaskuntzako Diseinuko Goi-mailako Ikasketen Tituluen espezialitateen arteko kredituak aitortzeko prozedura arautzen duena.

Urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak, maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolakuntza ezartzen duenak, irakaskuntza horiek arautzen ditu ikuspegi bikoitzetik abiatuta: batetik, horiek hezkuntza-sisteman integratzea eta, bestetik, arte-irakaskuntzen multzoaren planteamendu globala. Horrela, horiei berariazko espazio malgua ematen zaie, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Espazioaren printzipioekin bat.

Helburu horrekin, aipatutako 1614/2009 Errege Dekretuak irakaskuntzaren antolakuntza malgua, irakasteko metodologiaren berrikuntza eta ikasleen mugikortasuna errazten duen egitura-aldaketa proposatzen du eta, planteamendu horrekin bat, ECTS kredituak aitortzeko eta transferitzeko Europako sistema sartzea ere proposatzen du.

6. artikulua kredituen aintzatespenari eta transferentziari buruzkoa da. Aintzatespena hezkuntza-administrazio batek irakaskuntza ofizialetan eta goi-mailako arte-ikaskuntzako zentroetan zein Goi-mailako Hezkuntzako Europako Esparruko zentzoren batean lortutako kredituak onartzea da, titulu ofiziala lortu ahal izateko.

Goi-mailako Hezkuntza eratzen duten irakaskuntzen arteko ikasketen aintzatespen-araubidea ezartzea helburu duen Goi-mailako Hezkuntzaren esparruko ikasketen aintzatespenari buruzko azaroaren 14ko 1618/2011 Errege Dekretuaren argitalpenak (2011ko abenduaren 16ko EAO) 2011ko urriaren 10eko Ebazpenaren eranskinen eguneraketa behar du.

Bestalde, maiatzaren 14ko 633/2010 Errege Dekretuak, maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Diseinuko Graduoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzen oinarritzko edukia arautzen duenak, laugarren xedapen gehigarriaren 2. puntuaren ezartzen du, aurreko ikasketak hasita, horien gutxikako desagertzeak eta ikasketa-plan berrira sartzeak eragiten dienez, hezkuntza-administrazioek kredituak aitortzeko banakako prozedura berezia ezarriko dutela. Horren bidez, desagertzen ari den ikasketa-planeko Diseinuko ikasketetan lortuta, egungo Diseinuko Gradudunaren Titulua lortzeko kontuan hartzen diren kredituak erabakitzen dira.

Horregatik, eta ikasleen mugikortasuna eraginkorra egiteko, 1614/2009 Errege Dekretuak aurreikusten duenez hezkuntza-administrazioek goi-mailako arte-irakaskuntzen kredituen aintzatespenari buruzko araudia publiko egin behar dutela, Hezkuntza Sailburuordetzak honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena.- Arauaren xedea.



1.- Ebazpen honen bidez ezartzen eta arautzen da Gasteizko Diseinuko Arte eta Goi-mailako Eskolako Arte Irakaskuntzako Goi Teknikariaren eta Diseinuko Goi-mailako Arte Irakaskuntzako Diseinuko Goi-mailako Ikasketen Tituluen espezialitateen arteko kredituak aitortzeko prozedura.

2.- Era berean, izapide horiek Euskal Autonomia Erkidegoan formalizatzeko jarraitu beharreko prozedura ezartzen da.

Bigarrena.- Irizpide orokorrak.

1.- Diseinuko Goi-mailako Arte Irakaskuntzako kredituen aintzatespenak hurrengo irizpideak errespetatu beharko ditu:

1.1.- Ikasketen aintzatespena gradu-titulua lortzeko gaien eta goi-teknikariaren titulua moduluen edo gaien ikasketaren ondoriozko eskumenean eta ezagutzen egokitzapena kontuan izanda gauzatuko da.

1.2.- Espedientea autonomia-erkidego batetik bestera bidaliz gero, ikasketa berekin jarraitzeko, lortutako kreditu guztiak aitortuko dira.

1.3.- Diseinuko Goi-mailako Tituluaren espezialitate berria hasterakoan, oinarritzko trebakuntzako ikasgaiei dagozkien lortutako kreditu guztiak aitortuko dira.

1.4. Ezin dira inola ere aitortu edo baliozkotu honako hauei dagozkien kredituak:

a) Unibertsitateko edo goi-mailako arte-ikasketen gradu-amaierako lanak.

b) Arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionalen azken laneko edo proiektu integratuko moduluak.

Hirugarrena.- Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-mailako teknikarien kredituen aintzatespena.

1.- Hezkuntza Berriztatze zuzendariak oinarritzko zein espezializatutako trebakuntzako ikasgaiei dagozkien kredituak aitortuko dizkie goi-mailako teknikariaren titulua dutenei, tituluaren espezialitatea zuzenean erlazionatuta dagoenean ikasten ari den espezialitatearen eskumen zehatzekin, **I., II., III. eta IV. Eranskinetan** ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.- Diseinu Titulua lortzeko irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuan araututako ikasketa-planetik datozen ikasleen kredituen aintzatespena.

1. Diseinu Titulua lortzeko, irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuan araututako ikasketa-planaren arabeko ikasketak hasita, horren gutxikako desagertzearen eta ikasketa-plan berrian sartzearen eragina jasaten dutenek desagertzen ari den ikasketa-planeko Diseinuko ikasketetan lortutako kredituen aintzatespena eskatu dezakete, egungo Diseinuko gradudunaren titulua lortzeko.



2.- Maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Diseinuko Graduako Goi-mailako Arte Irakaskuntzen oinarritzko edukia arautzen duen maiatzaren 14ko 633/2010 Errege Dekretuko laugarren Xedapen Gehigarriari jarraiki, Diseinuko Goi-mailako Irakaskuntzako Barnealdeko eta Diseinu Grafikoko espezialitateei, Gasteizko Diseinuko Arte eta Goi-mailako Eskolaren proposamenez, **V. eta VI. Eranskinetan** zehaztutako kredituak aitortuko zaizkie.

Bosgarrena.- Diseinuko Titulua duten ikasleei kredituak aitortzeko prozedura.

Diseinuko Titulua izanda, Diseinuko Goi-mailako Ikaskuntzei dagokien Titulua espezialitate berean lortu nahi dutenek 180 kredituren aintzatespena lortuko dute, gutxienez, hezkuntza-administrazioak erabakitako trebakuntza gehigarria gainditu behar izanda.

Seigarrena.- Diseinu Tituluaren kredituen aintzatespena, Diseinuko Goi-mailako Arte Ikasketen beste espezialitate bati dagokion Titulua lortzeko.

1.- Diseinuko Titulua izanda, Diseinuko Goi-mailako Ikaskuntzei dagokien Titulua beste espezialitate batean lortu nahi dutenek oinarritzko trebakuntzako ikasgaiei dagozkien kredituen aintzatespena lortuko dute. Ezin dira inola ere aitortu edo baliozkotu honako hauei dagozkien kredituak:

a) Unibertsitateko edo goi-mailako arte-ikasketen gradu-amaierako lanak.

b) Arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionalen azken laneko edo proiektu integratuko moduluak.

Zazpigarrena.- Kredituak aitortzeko eskaera.

1.- Kredituen aintzatespenaren kasuetan, ikasleek hurrengo prozeduraren arabera izapidetuko dute eskaera:

1.1.- Behin zentroan plaza lortuta, ikasleak kredituen aintzatespena eskatuko du, eta eskaera izapidetuko du horren bidez, egindako ikasketen ziurtagiri akademiko pertsonalarekin batera.

1.2.- Zentroak Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara bidaliko du eskaera, ziurtagiri akademiko pertsonalarekin eta dagokion ebazpen-proposamenarekin batera.

1.3.- Izanez gero, kredituen aintzatespena ikaslearen espediente akademikoan jaso beharko da, eta dagokion ikasgaiaren tasen itzulera eragingo du.

1.4.- Kredituen aintzatespena behar duten ikasgaietarako, jatorritzko zentroan lortutako kalifikazioa izango da kontuan. Kalifikaziorik ez duen kredituen aintzatespena ez da kontuan izango, haztapenerako.



2.- 6 kredituren aintzatespena jaso ahal izango dute ikasleek kultura-, arte-, kirol-, ikasleen ordezkaritza-, elkartasun- eta lankidetzeta-esparruetako jardueretan parte hartzeagatik.

Xedapen gehigarria.- Arauaren garapena.

Baimena ematen zaio Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari Ebazpen honetan zehaztutakoa garatu eta aplikatzeko beharrezko xedapenak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailak 1

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA

María Antonia Ozcáriz Rubio



I. ERANSKINA

Barrualdeetako Diseinuko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetan, 237/2004 Dekretuaren arabera (2005eko urtarrilaren 5eko 3. EHAA) egindako **Dekorazio Lanetako Proiektuetako eta Zuzendaritzako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren** Tituluaren kredituen aintzatespena.

BARRUALDEETAKO DISEINUKO 1. MAILA	Aitortutako kredituak/ECTS
Diseinuaren oinarriak	10
Forma eta Bolumena	6
Artearen, Arkitekturaren eta Diseinuaren Historia eta Teoria	6
Teknologia Digitala	4
BARRUALDEETAKO DISEINUKO 2. MAILA	Aitortutako ECTS kredituak
Proiektuak I	9

II. ERANSKINA

Diseinu Grafikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetan, 236/2004 Dekretuaren arabera (2004ko abenduaren 28ko 247. EHAA) egindako **Publizitate Grafikako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren** Tituluaren kredituen aintzatespena.

DISEINU GRAFIKOKO 1. MAILA	Aitortutako kredituak/ECTS
Diseinu grafikorako baliabide informatikoak I	7
Artearen, Arkitekturaren eta Diseinuaren Historia eta Teoria	6
Teknologia Digitala	4
DISEINU GRAFIKOKO 2. MAILA	Aitortutako kredituak/ECTS
Inprimaketa	2
Diseinuaren kudeaketa	4
Tipografia eta maketazioa	8

III. ERANSKINA

Diseinu Grafikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetan, 234/2004 Dekretuaren arabera (2004ko abenduaren 29ko 248. EHAA) egindako **Ilustrazioko Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren** Tituluaren kredituen aintzatespena.

DISEINU GRAFIKOKO 1. MAILA	Aitortutako kredituak/ECTS
Marrazketa artistikoa	6
Artearen, Arkitekturaren eta Diseinuaren Historia eta Teoria	6
Teknologia Digitala	4
Oinarrizko kolorea I	4
Baliabide informatikoak I	7
DISEINU GRAFIKOKO 2. MAILA	Aitortutako kredituak/ECTS
Kolorea II	2
Inprimaketa	2



IV. ERANSKINA

Diseinu Grafikoko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetan, 249/2005 Dekretuaren arabera (2005eko urriaren 20ko 200. EHAA) egindako **Argazkigintzako Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren** Tituluaren kredituen aintzatespena.

DISEINU GRAFIKOKO 1. MAILA	Aitortutako kredituak/ECTS
Teknologia Digitala	4
Artearen, Arkitekturaren eta Diseinuaren Historia eta Teoria	6
Baliabide informatikoak I	7
DISEINU GRAFIKOKO 2. MAILA	Aitortutako kredituak/ECTS
Argazkigintza eta Ikus-entzunezkoak	4
DISEINU GRAFIKOKO 3. MAILA	Aitortutako kredituak/ECTS
Argazkigintza	5
Baliabide informatikoak IV	5

V. ERANSKINA

Diseinuko Goi-mailako Arte Irakaskuntzetan (Barrualdeetako Diseinuaren **Espezialitatea**), 78/2006 Dekretuak (2006ko apirilaren 26ko 79. EHAA) araututako **Diseinuko Goi-mailako Ikasketen (Barrualdeetako Diseinuaren Espezialitatea)** kredituen aintzatespena

DESAGERTZEN ARI DEN PLANA		PLAN BERRIA
Diseinuko Goi-mailako ikasketak (Barrualdea)	Kredituak ECTS	BARRUALDEETAKO DISEINUAREN GRADUKO 1. MAILA
PROIEKTUEN TAILERRA I	10	DISEINUAREN OINARRIAK
PROIEKTUEN TAILERRA I + ERAIKUNTZA + OINARRIZKO CAD	8	INTERIORISMOAREN TEKNOLOGIA I
GEOMETRIA DESKRIBATZAILEA I	6	IRUDIKAPEN SISTEMAK I
MARRAZKETA ARTISTIKOA I + MARRAZKETA ARTISTIKOA II	6	MARRAZKETA ARTISTIKOA
BOLUMENA I	6	FORMA ETA BOLUMENA
ARTEAREN HISTORIA	6	ARTEAREN, ARKITEKTURAREN ETA DISEINUAREN HISTORIA ETA TEORIA
MATERIALAK + ERAIKUNTZA	6	MATERIALAK
OINARRIZKO CAD	4	TEKNOLOGIA DIGITALA
MATEMATIKAK + MATERIALAK	4	ZIENTZIA ETA DISEINUA
MARRAZKETA ARTISTIKOA I + MARRAZKETA ARTISTIKOA II	4	OINARRIZKO KOLEOREA



DESAGERTZEN ARI DEN PLANA		PLAN BERRIA
Diseinuko Goi-mailako ikasketak (Barrualdea)	Kredituak ECTS	BARRUALDEETAKO DISEINUAREN GRADUKO 2. MAILA
ERAIKUNTZA	5	ERAIKUNTZA I
ERAIKINEN ERAIKUNTZA, ERABERRITZEA ETA BIRGAIKUNTZA	5	ERAIKUNTZA II
INSTALAZIOAK	2	INSTALAZIO ELEKTRIKOAK ETA KOMUNIKAZIOZKOAK
INSTALAZIOAK	2	INSTALAZIO SANITARIOAK
GEOMETRIA DESKRIBATZAILEA I + GEOMETRIA DESKRIBATZAILEA II	8	INTERIORISMOAREN TEKNOLOGIA II
PROIEKTUEN TAILERRA II	9	PROIEKTUAK I
PROIEKTUEN TAILERRA II + PROIEKTUEN TAILERRA III	9	PROIEKTUAK II
LEGERIA, ARAUDIA ETA MARKETINA	4	ANTOLAKUNTZA ETA MARKETINA

DESAGERTZEN ARI DEN PLANA		PLAN BERRIA
Diseinuko Goi-mailako ikasketak (Barrualdea)	Kredituak ECTS	BARRUALDEETAKO DISEINUAREN GRADUKO 3. MAILA
INSTALAZIOAK	3	GIROTZE INSTALAZIOAK
ERAIKINEN ERAIKUNTZA, ERABERRITZEA ETA BIRGAIKUNTZA	6	ERAIKUNTZA III
NEURKETAK ETA AURREKONTUAK	3	NEURKETAK ETA AURREKONTUAK I
PROIEKTUEN TAILERRA II + PROIEKTUEN TAILERRA III	9	PROIEKTUAK III

VI. ERANSKINA

Diseinuko Goi-mailako Arte Ikasketetan (Diseinu Grafikoko Espezialitatea), 228/2007 Dekretuak araututako (2008ko martxoaren 12ko 51. EHAA) Diseinuko Goi-mailako Ikasketen (Diseinu Grafikoko Espezialitatea) kredituen aintzatespena.

DESAGERTZEN ARI DEN PLANA		PLAN BERRIA
Diseinuko Goi-mailako Ikasketak (Grafikoa)	Kredituak ECTS	DISEINU GRAFIKOAREN GRADUKO 1. MAILA
OINARRIZKO PROIEKTUAK I (1. maila)	10	DISEINUAREN OINARRIAK
IRUDIKAPEN SISTEMAK I (1. maila)	6	IRUDIKAPEN SISTEMAK
MARRAZKETA ARTISTIKOA I (1. maila)	6	MARRAZKETA ARTISTIKOA
ARTEAREN HISTORIA I (1. maila)	6	ARTEAREN, ARKITEKTURAREN ETA DISEINUAREN HISTORIA ETA TEORIA
TEKNOLOGIA DIGITALA I (1. maila)	4+7	TEKNOLOGIA DIGITALA+DISEINU GRAFIKORAKO BALIABIDE INFORMATIKOAK
OINARRI ZIENTIFIKOAK I (1. maila)	4	DISEINUARI APLIKATUTAKO ZIENTZIA
TIPOGRAFIA ETA MAKETAZIOA (2. maila)	5	TIPOGRAFIAREN SARRERA
KOLOREA (2. maila)	4	OINARRIZKO KOLOREA



DESAGERTZEN ARI DEN PLANA		PLAN BERRIA
Diseinuko Goi-mailako Ikasketak (Grafikoa)	Kredituak ECTS	DISEINU GRAFIKOAREN GRADUKO 2. MAILA
DISEINU GRAFIKOAREN HISTORIA (2. maila)	6	DISEINU GRAFIKOAREN HISTORIA
KOLOREA (2. maila)	2	KOLOREA II
EKOIZPENA ETA INPRIMAKETA (2. maila)	2	INPRIMAKETA
TEKNOLOGIA DIGITALA II (2. maila)	5+5	DISEINU GRAFIKORAKO BALIABIDE INFORMATIKOAK II + DISEINU GRAFIKORAKO BALIABIDE INFORMATIKOAK III
PROIEKTUAK I (2. maila)	7+7	DISEINU GRAFIKOKO PROIEKTUAK I + DISEINU GRAFIKOKO PROIEKTUAK II
TIPOGRAFIA ETA MAKETAZIOA (2. maila)	8	TIPOGRAFIA ETA MAKETAZIOA
DISEINUAREN KUDEAKETA (3. maila)	4	DISEINUAREN KUDEAKETA
ARGAZKIGINTA ETA MULTIMEDIA (3. maila)	4	ARGAZKIGINTZA ETA IKUS ENTZUNEZKOAK

DESAGERTZEN ARI DEN PLANA		PLAN BERRIA
Diseinuko Goi-mailako Ikasketak (Grafikoa)	Kredituak ECTS	DISEINU GRAFIKOAREN GRADUKO 3. MAILA
PROIEKTUAK II (3. maila)	7	PROIEKTUAK III
TEKNOLOGIA DIGITALA III (3. maila)	5+5	DISEINU GRAFIKORAKO BALIABIDE INFORMATIKOAK IV + DISEINU GRAFIKORAKO BALIABIDE INFORMATIKOAK V